

BAKEA ETA BIZIKIDETZA TEKNIKARIA EUSKADIKO GAZTERIAREN KONTSEILUAN

ESKAITZEN DENA:

- Urte amaiera arteko kontratua, luzatzeko aukerarekin.
- Lanaldi osoko lan kontratua.
- Donostian bete beharreko lanpostua.
- 26.539,65€ urtean (soldata gordina).
- Lantalde gazte eta dinamiko batean sartzea.
- Bakea eta bizikidetzaren alde lan egitea, gazteok ardatz izanik.

LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK:

- Bakea eta bizikidetzarekin lotura duten proiektuak sortu, antolatu, garatu eta ebaluatu.
- Hausnarketa eta elkarrizketarako gune erosoak eta parte-hartzaileak erraztu.
- Bakea eta bizikidetzarekin lotutako gazteen beharrak, interesak, ikuspuntuak eta proposamenak jasotzea, aztertu eta erakundeei eta komunikabideei helarazi.
- Gazte elkarte, gizarte mugimendu, gizarte eragile eta administrazioarekin elkarlana eta, proiektuaren arabera, koordinazioa.
- Bakea eta bizikidetzarekin lotutako gaien gaineko aholkularitza.
- EGK-ko beste lan-arloetan "bakea eta bizikidetzaren" ikuspuntua bermatu.
- EGKren beste arloekin koordinatu.

ESKATZEN DENA:

- 30 urte baino gutxiago izatea.
- Arlo sozialean goi ikasketak izatea (Pedagogia, Soziologia, Antropologia, Filosofia...). Arlo honetako ikasketak izan ezean, egiaztatu daitekeen esperientzia izatea.
- Bake Kulturaren kudeaketan edota Giza Eskubideetan formazioa izatea (gradu-ondoko ikasketak, ikastaroak...) eta hauekiko konpromisoa.
- Gure Historia, bereziki azken hamarkadetako errealitatea eta honen gainean dauden ikuspuntu eta diskurtsoak ezagutzea.
- Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiko agenda berriari lotutako gaiak eta diskurtsoak ezagutzea (errefuxiatuak, migrazioak, kultur eta erlijio aniztasuna, berdintasunak eza...).
- Parte-hartze eta dinamizazio teknikan esperientzia izatea.
- Euskal gazteriaren, elkartegintzaren eta gizarte mugimenduen errealitatea ezagutzea.
- Euskaraz zein gaztelaniaz hitz egiteko eta idazteko gaitasuna izatea (EGA).
- Mugikortasunean (EAE) eta ordutegian malgutasuna izatea.
- Lanean hasteko berehalako prestutasuna izatea.

BALIOETSIKO DA:

- Elkartegintzan esperientzia izatea (gazte elkarteetan, Gobernu Kanpoko Erakundeetan, gizarte mugimenduetan...).
- Bakea eta bizikidetzaren alorrean gazteek martxan jarri dituzten, edo gazteak barnebiltzen dituzten ekimenak ezagutzea.
- Lantaldean aritzeko eta harremanetarako gaitasuna izatea.
- Ekimen propioak autonomiaz eta arduraz garatzeko gaitasuna izatea.
- Sortzailea, arazoaren aurrean alternatibak bilatu eta hainbat ikuspuntu barnebiltzeko gaitasuna.
- Jendaurrean hitz egiteko gaitasuna.
- Ingelesa, frantsesa edo beste atzeritar hizkuntza batzuk menderatzea.
- Beste lurraldeetako bake eta bizikidetzaren prozesuak ezagutzea.

HAUTAGAITZA AURKEZTEKO:

- Epea: **Azaroak 27, eguerdiko 12:00ak arte.**
- Curriculum eta motibazio gutuna bidali egk@egk.eus helbidera/ Gaian “Bakea eta Bizikidetzaren teknikaria” idatzi.
- Motibazio gutuna honela izendatu: **IzenAbizenakKARTA_BAKEA**
- Curriculum dokumentua honela izendatu: **IzenAbizenakCV_BAKEA**

Hauek izango dira prozesuan kontuan hartu izateko hainbat data:

- Curriculum bidalketa, **azaroaren 27a arte** (eguerdiko 12:00ak arte).
- Froga idatzia nork egin behar duenaren jakinarazpena, **azaroaren 30an**.
- Froga idatzia Donostian, **abenduaren 3an**.
- Elkarrizketa nork egin behar duenaren jakinarazpena, **abenduaren 11n**.
- Elkarrizketa eguna, **abenduaren 13an**.
- Lanean aritzeko hautatuaren jakinarazpena, **abenduaren 17an**.
- Lanean hasteko data, **urtarrilaren hasieran**.